

BILERA AKTA / ACTA DE REUNIÓN

OGP Euskadi - 5. Konpromiso taldearen 3. Bileraren akta

DATA/FECHA	2019/03/05	ORDUA/HORA	11:00	13:30	TOKIA/LUGAR	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregia
------------	------------	------------	-------	-------	-------------	--------------------------------------

• BERTARATUAK/ASISTENTES:

	Izen abizenak <i>Nombre y apellidos</i>	Erakundea <i>Organización</i>	Etorri da <i>Asiste</i>
1	Arantza Otaolea	Bilboko Emakumeen Kontseilua	X
2	Iñigo Benedicto	Sinnple	Ezin izan du etorri
3	Arantza Mendiharar	Herritarra	X
4	Antxon Gallego	Ibatuz	X
5	Maria Astigarraga	Herritarra	X
6	Judith Moreno	Donostiako Estrategia Bulegoa	
7	Kepa Korta	Donostiako Estrategia Bulegoa	X
8	Inmaculada de Miguel	Ararteko	X
9	Alfredo Gómez	Innobasque	X
10	Coral G. de las Heras	AZ Participación	
11	Itziar Garcia	ACOP Euskadi	
12	Aitor Garmendia	Attest	
13	Goio Martin	CCOO Euskadi	
14	Maria Teresa Lacave	Foro Ciudadano Irunés	
15	Claudia Pennese	RB3	
16	Elena Urdaneta	Euskampus	
17	Iñaki Ortiz	Eusko Jaurlaritza	X
18	Inmaculada Ereña	Bilboko Udala	X
20	Maria Presa	Bizkaiko Foru Aldundia	X
21	Arrate Arias	Arabako Foru Aldundia	X
22	Javier Arranz	Irungo Udala	X
23	Patxi Ugarte	Donostiako Udala	X
24	Josu Sa	Gasteizko Udala	X
25	Montse Gutiérrez	Ermuako Udala	Ezin izan du etorri
26	Alaitz Erkoreka	Mungiako Udala	Ezin izan du etorri
27	Antonio Laguna	Basauriko Udala	X
28	Esther Larrañaga	Gipuzkoako Foru Aldundia	X
29	Goizeder Manotas	Gipuzkoako Foru Aldundia	X
30	Haritz Ugarte	Gipuzkoako Foru Aldundia	X

- **GAI ZERRENDA / ORDEN DEL DIA:**

1. Partaidetza prozesuaren diseinua proposatu eta eztabaidatzea
  2. Euskal Zuzentasun Ereduaren diseinuan aurrerapenak
- 

1. *Propuesta de diseño proceso participativo para la validación del modelo*
2. Avances en el diseño del Modelo Vasco de Integridad

- **AZTERTUTAKO GAIAK / RESUMEN DE LO TRATADO:**

1. **Partaidetza prozesuaren diseinua proposatu eta adostea / *Propuesta de diseño proceso participativo y validación***

Bilera hasteko, Goizeder Manotasek azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundian azken asteetan egin den lana; alde batetik partaidetza prozesuaren inguruan eta bestetik zuzentasun sistemaren diseinuaren inguruan.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako teknikaria den Sergio Gonzalezek partaidetza prozesuaren diseinu orokorra azaldu du. 1. eranskinean jaso da aurkeztutakoa.

Egindako proposamenak taldearen oneritzia jaso du.

---

Goizeder Manotas ha presentado el trabajo que ha realizado la Diputación Foral de Gipuzkoa durante las últimas semanas en cuanto al diseño del proceso participativo y en cuanto al diseño del sistema de integridad.

A continuación Sergio Gonzalez, técnico de participación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha presentado la propuesta de proceso participativo, que se recoge como anexo 1.

La propuesta ha recibido el visto bueno por parte del grupo de trabajo.

2. **Euskal Zuzentasun Ereduaren diseinuan aurrerapenak / *Avances en el diseño del Modelo Vasco de Integridad***

Bileraren bigarren zatian, Esther Larrañagak aurkeztu ditu lehenik Euskal Zuzentasun Sistema jasotzen duen dokumentuari jaso diren ekarpenak, eta hauek nola landu diren kontatu du. Dokumentuaren bertsio zuzendua 2. Eranskin bezala txertatu da.

Ondoren, Estherrek aurkeztu ditu Euskal Zuzentasun Sistema oinarritzen duten printzipio eta balioak, lantaldeko partaideek egindako ekarpenekin. Denon artean printzipio eta balioak eztabaidatu eta antolatu ditugu. Horrela geratu dira:

---

En la segunda parte de la reunión, Esther Larrañaga ha presentado las aportaciones recibidas al documento que recoge las bases del diseño del Sistema Vasco de Integridad. La nueva versión del documento se adjunta como Anexo 2.

A continuación, Esther ha presentado los principios y valores que sustentan el Sistema Vasco de Integridad, con las aportaciones del grupo de trabajo. Entre todas y todos hemos debatido y reorganizado los principios, que han quedado así:

<b>INTERES OROKORRA</b>
Zuzentasun/Integridad
Inpartzialtasun eta Objektibotasun / Imparcialidad y Objetividad
Onestasun eta desinteres subjektiboa/ Honestidad y desinteres subjetivo
Eredugarritasun/ Ejemplaridad
Erantzukizuna / Responsabilidad
<b>ERRESPECTU ETA IREKITASUN/ RESPETO Y APERTURA</b>
Begirunea/ Respeto
Elkarbizitza/ Convivencia
Berdintasuna eta diskriminazio eza/ Igualdad y no discriminación
Hizkuntza eskubideak eta euskararen sustapena/ Derechos lingüísticos y promoción del euskera
Herritarren parte hartzea eta ko-sormena/ Participación ciudadana y cocreación
Gardentasuna eta datu irekiak/ Transparencia y datos abiertos
Kontu ematea/ Rendición de cuentas
Eskuragarritasun unibertsala /Accesibilidad universal (incluir comprensión clara) Neutralidad tecnológica
Entzumen aktiboa/ Escucha activa
Zintzotasun/ Sinceridad
Ekitatea/Equidad
<b>ONDORIO ONAK/BUENAS CONSECUENCIAS</b>
Kohesio ekonomikoa, sozial eta lurralde kohesioa/Cohesión económico, social y territorial
Jasangarritasuna/Sostenibilidad
Ondare kulturalaren babesa/ Protección del patrimonio cultural
Kudaketa-eredu berriak eta berritzaileak/Nuevos e innovadores modelo de gestión.
Eraginkortasun eta efizientzia/ Eficacia y eficiencia
Lidergoa partekatua eta eraldatzailea/ Liderazgo compartido y transformador
Bikaitasun Profesionala/ Excelencia profesional
Berrikuntza soziala/ Innovación social
Azkartasun eta sinpletasun/ Simplicidad y celeridad
Erakundeen arteko elkarlana/ Colaboración interinstitucional multinivel
Baliabide publikoen kudeaketa arduratsua/Gestión responsable de los recursos públicos/

### 3. Dokumentu laburtua / Documento resumido

Bestetik, Haritz Ugartek Euskal Zuzentasun Sistema aurkezteko erabiliko den dokumentu laburtua aurkeztu du, eta sistema osatuko duten elementuen definizioa guztion artean landu dugu, bakoitzarentzat gutxieneko ezaugarriak adostuz. Dokumentu hau sistema aurkezteaz gain herritarrekin diseinua lantzeko erabiliko da prozesu parte hartzailean.

Dokumentu hau, taldeak proposatutako aldaketekin, 2. Eranskin bezala jaso da.

---

Por otro lado, Haritz Ugarte ha presentado el documento resumido que recoge la definición del Sistema Vasco de Integridad. Hemos trabajado en grupo los elementos que componen el sistema y hemos consensuado las características básicas de cada elemento. Este documento se utilizará, además de para presentar el modelo, para trabajar el diseño del mismo en el proceso participativo.

El documento, con las modificaciones propuestas por el grupo, se ha recogido como Anexo 2.

### 4. Online partaidetza galdetegia / cuestionario de participación online

Azkenik, Haritzek komentatu du parte hartzeko online galdetegi bat prestatuko dutela, partaidetza prozesuan parte hartzeko gonbidapenarekin batera bidaliko dena, martxoaren 12tik aurrera. Galdetegi honen bitartez saio presentzialera etorriko ez direnen ekarpenak jaso ahal izango dira, eta bestetik, etorriko direnek landuko diren gaiak ezagutu ditzaten balioko du.

Galdetegia 3. Eranskin bezala jaso da.

---

Por último, Haritz ha comentado que se va a preparar un cuestionario de participación online, que se enviará a las personas junto con la invitación al proceso participativo, a partir del 12 de marzo. Con este cuestionario se quieren recoger aportaciones de las personas que no asistirán a las sesiones presenciales, y también para que las personas que sí asistan conozcan previamente los temas a trabajar.

El cuestionario se ha recogido como Anexo 3.

- **EGITEKOAK / TAREAS:**

ESKRIBAPENA / DESCRIPCIÓN	ARDURADUNA / RESPONSABLE	EPEA / PLAZO
Dokumentu laburtua zuzendu, galdetegia prestatu eta partaidetza prozesurako gonbidapena bidali. Actualizar documento resumido, preparar el cuestionario y enviar la invitación al proceso participativo.	Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/3/12
Partaidetza prozesurako gonbidapena eta dokumentazioa bidali lurraldeko erakunde, enpresa eta herritarrei. Enviar la invitación al proceso participativo junto con la documentación a asociaciones, empresas y ciudadanía del territorio.	Arabako Foru Aldundia Bilboko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/3/12-13
Partaidetza prozesua egin Realización del proceso participativo	Arabako Foru Aldundia Bilboko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/4/2: Bilbao 2019/4/3: Gasteiz 2019/4/4: Donostia
Partaidetza prozesuko emaitzak aztertu eta ereduaren proposamen berria egin Analizar los resultados del proceso participativo y preparar nueva propuesta de modelo	Arabako Foru Aldundia Bilboko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia	Maiatzeko bilerarako Para la reunión de mayo

- **HURRENGO BILERA / PRÓXIMA REUNIÓN**

Hurrengo bilera maiatzaren 7an egingo dugu, 10:00tatik 12:30tara. Tokia oraindik zehazteke dago.

---

*La próxima reunión se realizará el 7 de mayo de 10:00 a 12:30. Todavía no se ha concretado el lugar.*

**Donostian, 2019ko martxoaren 20an**

### 1. Eranskina: Partaidetza prozesuaren proposamena



EZS\_proiektu\_aurkez  
pena\_es.pptx

### 2. Eranskina: Sistema aurkezteko dokumentu laburra



EZS\_laburtua\_2019\_ EZS\_laburtua\_2019\_  
03\_11\_eus.docx 03\_11\_es.docx

### 3. Eranskina: Partaidetzako online galdetegia



OGP Zuzentasun OGP Zuzentasun  
sistemaren inguruko sistemaren inguruko g